



ASCUNCE, José Ángel

Bernardo Atxaga. Los demonios personales de un escritor

Donostia : Saturraran, 2000. - 191 p. ; 20 cm. - ISBN: 84-931339-0-6

Ikerketa lan honek Bernardo Atxagaren liburu jakin batzuen azterketa literarioa aurkezten digu; zehatzagoa izateko, *Obabakoak*, *Behi euskaldun baten memoriak* eta *Gizona bere bakardadean* eleberrien azterketa. Luzera nahiko orekatua duten hiru obra hauei buruzko atalei Ascunce bi kapitulu gehitzen die; lehena metodologikoa (aukeratutako korpusaren justifikazioa, erdarazko bertsioen erabilpenaren justifikazioa, etabar), bigarrena –liburuari amaiera emanez– konklusiboa. Aitzin-solasa ere badu ikerketa honek, zeinetan azaltzen baitzaigu ekimen unibertsitario europar baten eraginez idatzi zirela hastapen batean artikuluko solteak baizik ez ziren kapitulu ezberdinak. Beste garrantzizko zerbait ere esaten zaigu hitzaurrean, hau da, “memoria eta autobiografia” uztartzen zituela delako ekimen kolektibo hark literatura garaikideari aplikatuta. Eta garrantzizkoa dela diot ezen hauxe baita ikerketaren barne koherentzia bermatzen duen ildo bikoitza. Zorionez Ascuncerentzat, Atxagaren obra ondo baino hobeto egokitzen zaio “memoria eta autobiografia” binomioari eta kanpotik inposaturiko lan norabidea guztiz naturala egiten da kontestu atxagarrean.

Esan bezala, Ascunceren lanak hiru obra hartzen ditu aintzat eta hurrenez hurren aztertzen ditu, atal ezberdinetan. Obra bakoitzaren konplexutasun estrukturala zein narratiboa seriosotasun handiz argitzen ditu Ascunce hurbil-hurbileko irakurketa batean oinarrituz eta tresna teoriko ezberdinak baliatuz. Honela, Gerard Genette kritikariaren hiztegia –batez ere *Le Discours du récit* testu famatuan agertzen dena– erabiltzen da denboraren antolakuntza aztertzeko orduan (prolepsiaren erabilpena, analepsiarena, ...) edota sistema narratologikoa azaltzeko unean (narrazio autodiegetikoaren erabilpena, narrazio maila ezberdinen arteko jokoak, ...). Liburuaren zatirik lortuenak, ene iduriko, obserbazio zehatzenetik abiatu eta garapen orokortzaile bateraino iristen diren pasarteak dira. Xehetasunik ezdeusena sistema literario orokor eta guztiz pertsonal baten atal ordezkazetza dela erakusten baitigu Ascunce. Hori gertatzen da, adibidez, espazioaren (espazio ezberdinen) antolakuntza aztertzen denean *El hombre solo* eleberrian. Ekintza gertatzen den tokiaren analisi semiotiko-sinboliko komentzigarri batetik abiatuz (hotelaren izaera kontzentrikoa, hotela bera, okindegia, okindegiko gela izkutua, edo kanpokaldea eta bere kanpokotasun maila ezberdinak, banyera, Bartzelona, Euskal Herria) Carlos pertsonaia nagusiaren egoera mentalarekin lotura egiten du Ascunce, eta maila orokorrago batean, Atxagaren unibertso literarioaren antolamendu orokorrarekin ere. Gauza bera esan daiteke *Obabakoak*-en egitura edo arkitektura zenbakien bidez aztertzen duenean, bigarren pausu batean autorearen kontzepzio literario-metaliterarioarekin lotura eginez.

Halere, eta hau da liburuari batasuna eta indarra ematen diona, hiru obra hauen arteko harremana (idazkeraren bilakaera, batetik bestera irauten duten osagaiak edo

aldatzen direnak) etengabe gogoetatzen da, berariaz murrizturiko korpus hau bere osotasunean haztatzeko ahalegin eskergarria egiten duelarik autoreak. Ascunceren arabera “idazkera gertaera” eta “existentzia gertaera”ren arteko oreka edo desorekan legoke Atxagaren bilakaera literarioaren giltzarri bat. *Obabakoak-en* idazkera gertaera “nagusi bada, ondorengo bi lanetan” existentzia gertaera “gailendu egingo zaio honi. Era berean, sinbolismo metaliterario batetik psikologismora egindako pixkanakako jauzia agertzen saiatzen da Ascunce, edota alegoriatik errealismoaren estetika batera emandako aldaketa.

Ondorioztapen orokortzaile horiekin beti ados ez gaudela ere aitortu behar da. Diskutigarriak izan litezkeen baieztapenen artean honako hau legoke, kasu: Ascunce dio formalki (konposizioari dagokioenen) nahiz narratiboki *Gizona bere bakardadean* eta *Behi euskaldun baten memoriak Obabakoak* baino lortuagoak, aberatsagoak direla. Finean, Atxaga heldutasun literario handiago batera iritsi litzateke azken obra hauetan. *Obabakoak-i* heldutasun literarioa iritsi gabeko –edo ozta-ozta iritsitako– autore baten lana irizteari gehiegi deritzogu, eta esan dezagun, bidenabar, Ascunce berak bere ondorioztapen hori ezeztatzeko argudioak ematen dizkigula obra konplexu eta aberats honen azterketa maisuki eginez. Bestalde, Ascunce bere sarreran ongi dioen bezala *Obabakoak* ez da literaturgintzan hasi berria den idazle baten emaitza baizik eta hamarkada eta erdi lehenago trebatzen hasitako norbaiten emaitza. Azkenik, egia bada, *Gizona bere bakardadean* obra formalki eta narratologikoki aberatsa dela, ez ote da egia, baita ere, obserbatzaile gehienek esan izan dutenez, kutsu komertzialagoko obra dela *Obabakoak-ekin* alderatuta? Ascunce heldutasun frogatzaile dauzkanak –psikologismoa eta errealismoa, pertsonaien barne-ahotsekiko jokua– ez ote dira sinpleagoki erregistro aldaketa baten emaitzak, hots nazioarteko literatura komertzialaren kanon estetikoekiko hurbiltze bat (autoreak berak errepikatuki aitortua eta asumitua, bidenabar)? Badirudi eboluzionismo kutsua duen baieztapen honen atzean –Atxaga heldutasunerantz doalako– arazo metodologiko bat izkutatzen dela, hots liburua osatzeko erabili den korpusaren mozketara bera.

Izan ere, zergatik aukeratu dira hiru obra horiek, eta horiek bakarrik? Zein irizpide-aren arabera? Ascunce aitortzen duenez *Esos cielos* eleberriaren baztertea, adibidez, gainerantzeko artikuluei bide eman zien programa unibertsitarioaren ustegabeko etetearen ondorio litzateke (obra honi buruzko ikerketa hasita zeukan bertan behera utzi zuenean). Korpusa obra hauetara mugatzeko aurkezten den beste arrazoi bat generikoa da: narratiba da aintzat hartu nahi dena. Hortaz, kanpoan geratzen dira haur ipuiak (*Bi anai* ere kategoria zehatzgaitz honetan kokatzen delarik?), poesiak eta beste lan abangoardistak. Alabaina, ikusi beharko litzateke ez ote den lehen garaieko obrak ez tratatzeko arrazoietan kokatu behar itzulpenen arazoa. Atxagaren obra zahar guztiak ez zeuden gaztelaraz argitaratuta Ascunze bere liburua osatzen ari zen garaiean eta, gaztelarazko bertsioren azterketa izanki hemen proposatzen zaiguna (nahiz euskarazkoei laguntza eskatzen zaien tarteka, hipotesi bat baieztatzeko edo azkartzeko), logikoa eta defendagarria zirudien korpusa mugatu den bezala mugatzea. Baina kontua da egileraren bilakaera literarioa artifizialki mozten duen muga honen eragin ezezkorra arestian aipaturiko eboluzionismorako joera dela (Atxaga eta bere obra *Obabakoak-etik* aurrerakoa baizik aintzat hartuta ulertzea normala balitz bezala).

Funtsean, gaztelarazko bertsioren erritmoak baldintzatutakoa izatea litzateke ikerketa sendo eta aberats honen akats bakarra, gaztelarazko testuekiko menpekotasuna bibliografian ere somatzen delarik (bertan aurki ditzakegun artikulua gehienak ere gaztelaraz idatziak dira, euskaraz idatzitakoak ugariak eta aberatsak direlarik). Honela, adibide bakar bat ematearren, saihetsezinak diruditen Joseba Gabilondoren azterketa kritiko interesgarrienak ez dira erreferentziatzen bertan.

Dena den, berrets dezagun ikerketa hau irakurriko duenak ez duela denbora galduko, Atxagaren obra ezagunenetarikoa batzuen azterketa zehatz bezain trinkoa proposatzen baitu bertan Jose Ángel Ascunce tresna metodologiko egokiak modu zuhurrean erabiliz.

Ur Apalategi Idirin



ABELLAN, José Luis; APAOLAZA, Xabier; ASCUNCE, José Ángel; URQUIZU, Patricio
Memoria del exilio vasco. Cultura, pensamiento y literatura de los escritores transterrados en 1939
 Madrid : Biblioteca Nueva, S.L., 2000. - 195 p. ; 21 cm. - ISBN: 84-7030-783-5

El exilio político, a pesar de sus limitaciones, tuvo una indudable incidencia en la población sometida al régimen franquista. Los mensajes eran directos, la situación de sufrimiento, de carestía, de carencia total de libertades democráticas, hacía que el terreno estuviese abonado. Su objetivo era unívoco: atacar al franquismo, oponerse a la opresión, acercarse a la democracia. En el ámbito cultural las cosas se desarrollaban de diferente manera. La variedad de orígenes –no sólo políticos sino culturales–, la pluralidad de objetivos, los ámbitos de actuación y las menores, a veces insuperables, posibilidades de difusión, hicieron limitar o delimitar, su presencia y su incidencia a ámbitos más restringidos, a objetivos más sectoriales, aunque en el fondo, el mero hecho de manifestarse libremente en el pensamiento, la cultura y la creación, tenían un inevitable contenido político, como ocurre en todos los exilios ante una situación de opresión. La calidad, el interés, de las diferentes manifestaciones culturales del exilio, pueden variar considerablemente –y de hecho así sucede– pero todas ellas se manifiestan en el ámbito de la libertad creativa, algo que en aquella época estaba completamente vedado en el interior de la España franquista.

Reflejar esta situación fue el objetivo elegido, a los sesenta años de la conclusión de la guerra civil, por la Delegación de Madrid de la Sociedad Vascongada de Amigos del País, por medio de un ciclo de conferencias que se desarrollaron en octubre de 1999 en el Ateneo de la capital. Los participantes en ellas, son especialistas de sobra conocidos –tanto en el ámbito vasco como en el académico general– en el exilio republicano y, particularmente, en el que se refiere al campo de la cultura. No hace falta pues subrayar, debido al origen señalado más arriba, que la vocación de este libro se sitúa en el difícil terreno de la divulgación y viene respaldado por la labor de investigación de sus autores, ampliamente demostrada en otros trabajos académicos, que permiten abordar esta síntesis con una auténtica base científica y no con generalidades o buenas intenciones como ha sólido ocurrir en otras ocasiones.